

BIZKAI'KO KOLKOA

ITXASPEKO URAK

Euskalerriko ispazterretan itxaspeko urbizi naba-ritsuak ei dagoz.

Ez dira guztiz ezangunak eta jakintsuki euren joan-etorriak eta itxas-barna ze goi-berako neurrian ibilli dabiltzan guri jakin-arazteko, Gipuzkoa'ko lau toki ezbaridinetan 15 milla plastikozko txarteltxoak itxasora botaten diardue.

Kopuru aundia benetan.

Orrez gain, urte-azkeneraño luzatuko ei da txarteltxoak bitarteko, ainbat argitasun eta bestelango zertzeladak izan dagiguzan.

;

URDANETA IKASTETXEA

Gopapen onen eragillea «Andres Urdaneta» ize-nezko Euskal Lutelestiko Institutoa edo Araudi-Ikastola ei da.


Onen arduraduna, ori ta be, Donosti'ko Aurrezki-Kutxa Udaldarra ain zuzen.

Olan ze-nolako itxas-kutsadurak inguratzen gaituen, arrain mueta askoren nundik norako ibillerak eta abar, obeto ezagutzeko gerturik egongo gara, euren iritxiz.

* * *

ASKOTARIKO LANA

Ez uste txantxetako lana danik.



Igarigaia ta txartela

LENENGO JAUNARTZLA

Ba da udabarria, ba da jorrailla.
Orri bigunaz bete dira zugatzak.
Pozik, egun onetan, etxeko jaunak
Begitzen dauz ortuan, loran sagarrak.

* * *

Beste poz bat biotzan, andiagua:
Gaur alaba txikia jaunartzen dua.
Jantzi barriz jantzita, ondo orraztuta,
Amagaz_ eleizara, esku batuaz.

* *

Gaur izan da igandeko meza nagusi.
Jaunak mai-inguruban, ain beste txiki

Beste zer batzuen artean, gaurko lantxo onetan, bigaz mintzatuko gara bereziki.

«Correntimetros» edo urbizi onein neurketak egokitsu egin dagiezan tresna baliotsuak itxas zabalean nun kokatu bear diran, begiztatu bearra izango da batetik.

Eta bestetik ur-azaleko igarigai edo flotadorak eta berebat txarteltxo taialariak, bide erakusleak be erabilli bearko dira nunbait.

Gauza barria ez danez, oartu dagigun beste errialde batzuetan be oneitariko jakin-bideak itxasoan barna bein eta geiagotan burutu dabezela, eta baita ere ondorio baliotsuak emon dautsezela geienbaten.

* * *

IKUSPEGI ZABALAGOA

Euskal-lutelestiko Araudi-Ikastola, gaiaren zailtasunagaitik eta batez be lentxoago baten beste Erakunde garrantzitsu bik be Bizkai'ko Kolkoan aurkitu oi doguzan urbizi ta itsariñatzaz euren lanak aurkeztu ebezanez, Erabide bi oneitan oiñarritu da bere zeregiñean.

Aurretiko lanen egilleak Prantsestar guda-ontzidia 1967'garren urtean eta Gipuzkoa'ko Osasun-bideko Burugoa 1966 garrenean izan ziran.

Aurtengo lanen amaieraz, eta len bateko beste biak erro lez dauzala, itxas-urbizien gaurkotutako ikuspegi zabalagoa ta osoagoa izango dogulakoan gagoz.

* * *

TXATELEN JAURTZEA

Aurten, illeroko arazoa izango da txarteltxoak itxas-gaiñera botatzea ta beti lau toki ezbaridinetatik ziurkiro.

Ortarako, jaurtze bakoitzean, giroaren goraberako parametruak ezezik, baita itxas-jakintzarenak ere begiztatu bearko dira.

Agiriko oar baten Euskal-Lutelesti'ko Institutoak dirausku, txarteltxo oneik idoroten ba'doguz bialdu dagiguzala Donosti'ra.

Zuzenbidea: San Marcial 13-4.

Txartel zuriak dira, plastikoz inguraturik dagoz eta igarigai edo flotador txiki bat dabe.

Ondartzetan agertu leitezke.

Txalogarria izango da goiko zuzenbidera eurak bialtzea.

ARREGI'tarJOSU'k

Izan dauz, maitekorrak, danak ixillik,
Biotz errubakoak, Berari eskintzen.

* * *

Auxe da danontzako egun alaya.
Jaunaren onespenez, ospatu jaya.
Amarrak emon dautso gomutakia,
Irudi polit baten auxe idatzia:

* * *

Birgifian besoetatik
gaur etorri da zugana
zeure laguna izateko
Jaungoiko seme bakarra.
Ezaitez iñoz urrundu
lagun maite onetatik.
Ez munduan, ez zeruan
eztagolako oberik.

UTARSUS